



Industria-parkeetan energia modu sostengarrian kudeatzeko kooperazio eta zerbitzu eredu berriak eratu eta probatzea



S-PARCSek industria parkeetan energia kontsumo eta kostua murrizteko kontzeptu sendoa du eta energia eraginkortasunari buruzko neurrietan nahiz bertan energia berriztagarrien ekoizpena gehitzean oinarritzen da. Espainian, Portugalen, Italian eta Austrian zazpi industria parke aitzindari izan dira eta atariko azterketak frogatutakoaren arabera, energia ekintza erkideek garapen ahalmen handia dute.

Gainera, asko industria parke jarraitzaileen erkidegoetara transferi daitezke hurrengo herrialdeetan: Erresuma Batua, Suedia, Turkia, Errusia, Italia, Portugal, Austria eta Norvegia. 5 ikerketa zentrok, ingeniari batek eta industria elkarte batek industria parkeen esku teknologia egokienei buruz beren ezagutza jarriko dute eta negozio eredu berriztatzaileak eta enpresen arteko kooperazioan esperientzia aditzera emango dituzte. Bide batez, energia kooperazioaren plana egiten lagunduko diete.

Energiaren eremuan ekintza erkideak oztopa ditzaketen hesi desberdinak (finantzarioak, legezkoak, antolaketak, etab.) eta gainditzeko moduak identifikatuko dituzte. Nolanahi ere, eskualdean, nazioan eta Europar politika egin eta inplementatzean ezin estimuzko ekarpena izango dira.



HELBURUAK

- 1. helburua:** egiazko testuinguruetan energia kooperaziorako errepika daitezkeen tresnak garatu, probatu eta zabaltzearen bidez enpresen lehiakortasuna areagotzea.
- 2. helburua:** industria parkeetan energia zerbitzu erkideak kontratatzeako errepika daitezkeen negozio ereduak garatu, probatu eta zabaltzea.
- 3. helburua:** energia kooperaziorako tresna berriztatzaileak sustatu eta bizkortzeko lege eta arau esparruak garatzen laguntzea eta eztabaida politikoa piztea.
- 4. helburua:** gaitasunak sortu eta industria aktoreen abileziak eta ahalmenak areagotzea Europan.



JARDUERAK

S-PARCSek, bereziki, honako jarduerak inplementatuko ditu:

- 1) Industria-parkeetan energia kooperazioari dagokionez artearen egoera – Konponbideak, aukerak eta hesiak identifikatzea.
- 2) Energia kooperazioa hobetzeko negozio ereduak eta tresna berriztatzaileak eratzea.
- 3) Industria parkeetan zerbitzuak balioztatzen diren tresnak garatzea.
- 4) Energia kooperazioa gehitu eta hobetzeko industria parkeei laguntzea.



Cuoioidepur, San Miniato (Italy)



Ennschafen, Enns (Austria)



Adral, Vendas Novas (Portugal)



Okamika, Gizaburuaga (Spain)



EMAITZAK

S-PARCS proiektuaren helburua industria parkeen topaketa eta hazkuntza gune bihurtzea da, batetik, energia eraginkortasuna gehitu eta, bestetik, energia kooperazioko ekintzen bitartez eraginkortasuna hobetu nahi badute. S-PARCS jakitun da konponbide berriztatzaileen bidez energia eraginkortasunerantz egin behar den bidean parke bakoitza fase desberdinean dagoela.

Era berean, intentsitateari eta zehaztapen mailari dagokionez, parkeek laguntza motak behar dituzte. Beraz, proiektuaren amaieran, industria parke aitzindari guztiek tresna bat izango dute eta, horri esker, inbertsio erkideei buruzko erabakiak hartzeko erraztasunak izango dituzte. Proiektu itxaropentsuenen kasuan, bideragarritasun proiektu zehatza egingo da eta epe luzera ekintzen estrategia definitu ere bai.

GUREKIN KONTAKTATU

TECNALIA

Mirari Zaldúa

mirari.zaldua@tecnalia.com

Koordinatzailea:

Andrea Kollmann

kollmann@energieinstitut-linz.at

Website:

sparcs-h2020.eu



Asociación de Fundidores
País Vasco y Navarra



Escuela Superior
Saint Anna

